

BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresan beste enpresen ekoizpena hobetzeko aholkuak eskaintzen ditugu. Adibidez marketing berdeko estrategiak (irudi “ekonamigable” bat sortzea, ospea hobetzeko eta enpresak jendeari egiten dizkion ahalegin iraunkorrek sustatzea) eta produktu jasagarrien berrikuntza eta garapena (ingurumen-inpaktu txikiagoa duten produktuak sortzeko lagunduko diegu, iraunkorrek eta biodegradagarriak direnak). Gainera, haien diru arazoak konpontzen laguntzen diegu, gure aholkuak jarraitzen badituzte diru laguntzak jaso ahalko dituztelako produktu jasagarriak egiten hasiko direlako. Segidan, diru laguntzak nola kudeatu ere azalduko diegu.

Merkatuan dauden gainerako aholkularitzetatik bereizten gaituena da gure enpresan ideiak ingurumenerako onuragarriak izan daitezen zentratzean ez dugula hainbeste eremu hartzen da, eta, beraz, dauzkagun ideiak modu eraginkorragoan gara ditzakegula. Beraz, oso zerbitzu espezifikoak eskeintzen ditugula esan dezakegu. Gainera, gure zerbitzuak eskaintzen dizkiogun enpresan ez badituzte ezagutza askorik ekonomia iraunkorraren arloan jarduteko, bigarren zerbitzu bat eskaintzen diegu, eta, hala, beren produktuak aldatu ondoren jasagarriagoak izateko jaso ditzaketen laguntza ekonomikoen kudeaketak egiten lagunduko diegu.

Bestalde, bezeroengandik hurbil egoten saiatuko den enpresa bat gara, haien iritziak, ikuspegiak eta enpresaren etorkizunerako duten ikuspena kontuan hartuta.

Gure enpresaren balio ondorengo ezaugarrietan oinarritzen da:

- Berritasuna: enpresei eskainiko dizkiegun ideiak haiek iadanik dituzten produktuentzat erabilera berri bat emateko. Horrela, haien produktuak jasagarriagoak bihurtuko dira.
- Prestazioak: gure prestazioak zerbitzu (ideiak) bat beste enpresa bati eskaintzea da. Eta kontratu baten edo legezko betebeharraren bidez ezarriko da.
- Lana erraztea: gure ideiekin haien produktuak aldatzerakoan diru laguntzak eska diezaizkiekete enpresa jasagarriagoak bihurtuko direlako. Hori dela eta, diru laguntza horiek lortzeko kudeaketa lagunduko diegu.
- Diseinua: diseinuaren ere ideiak eskaini ditzakegu. Adibidez plastiko asko erabiltzen bada produktu batean beste diseinu bat eskainiko diegu plastiko gutxiago erabil dezaten.
- Langileen formakuntza: gure enpresaren langileak aldeztu aurretik prestaketa akademiko bat izan beharko dute, behar diren kudeaketa guztiak egiteko. Hasteko, DBH ikasketak derrigorrez izan beharko dituzte, merkatuaren funtsezko ikasketak, Batxilergoko tituluta baita ekonomiako goi mailako gradu bat edo ADE-ko goi mailako gradua. Beste alde batetik, gure enpresaren ingeniari-tza prozesu zatiaren egiten duen langilea beharrezkoa izan beharko du ingeniari-tza gradua izatea.
- Jasagarritasuna: gure enpresak jasagarritasunarekin bat egongo du. Horretarako gure ideiak digitalean aurkeztuko ditugu paperik ez gastatzeko. Eta papera izan beharrez gero, paper birtziklatua izango dugu. Horretaz aparte, gure altzairuak egur birtziklatuarekin egindak daudenak eukiko ditugu. Gainera, gure ideiak jasagarriak izango dira, pentsatzen dugulako bezeroentzat hobeto izango delako.